



# Xiberoko Ikastoleen Alde



2003an hasirik, Xiberoko Ikastoleek (Aloze eta Sohüta), gabonetarako, otarreak eskaintzen dituzte. Pasa den urteko salmenta kanpainak **14 mila euroko emaitza lortu zuen bi ikastolentzat**. 2016ko otarre salmenta kanpainan hunen bitartez lortu izan dute, besteak beste :

1. **Ikastolaren finantziazioan laguntzea.** Seme-alabek euskaraz ikasteagatik, gurasoek finantziazioaren %30 jartzen dute eta administrazioek, %20. Gainerako %50, hau bezalako gizarte ekimenen bidez eskuratzen dute. Salmenta honekin %5 estaltzea espero dute; beraz, gure erosketa garrantzitsua da Xiberoko Ikastoleentzat.
2. **Euskararen erabilera Xiberoan, eta gure ikastoletan indartzea :** pasa den urteko salmenta kanpainari esker, lan postu erdi bat eskainia izan zaie ama eskolako haurrei, euskara sustatzeko asmoarekin. Bestalde, liburutegi bat ere osoki euskaraz ideki da Sohütako ikastolaren baitan.
3. **Beste ikastolekiko elkartasuna adieraztea :** “Hazten gaitu, hazten dugu” diru bilketa kanpainan parte hartu dute Beñat Etxepare Lizeo berriaren alde (mila euro emanak izan dira 2016ko kanpainari esker).

## AHUZKI OTARREA

Ardi gazta zatia (450 gr)  
Ahate gibela (125 gr)  
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)  
Eztia (500 gr)  
Euskal xerriki pateaa (200 gr)  
Euskal xerriki odolkia (200 gr)

PREZIOA: 40 €

Ahuzki

40 €



## IRATI OTARREA

Ardi gazta zatia (450 gr)  
Ahate gibela (125 gr)  
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)  
Eztia (500 gr)  
Txahalki kontserba piperrekin, berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest (640 gr)  
Euskal xerriki lukainkak (400 gr)

PREZIOA: 52 €

Irati

52 €



**Zuk ere elkartasunez Xiberoko Ikastolak lagundu : Gaurdanik erein Euskararen aldeko haziak, bihar loratu ahal daitezen!**

**Egin zure eskaera abendoaren 11a baino lehen**, beraien weborriaren sartuz [www.ikaskoli.eu](http://www.ikaskoli.eu) edo heiekin zuzenean kontaktuan jarriz [nikere@ikaskoli.eu](mailto:nikere@ikaskoli.eu).

**Manatu otarreak jaso ahal izango dituztue abendoaren 19tik harat, zuen euskaldeko zentralizazio gunean (EREIDAJAN Bio denda, Nafaroa etorbidea 23 / AEDko egoitzan, ...).**

**Esker mila zuen elkartasunaz.**